



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **2018ko ABENDUAREN 11n EGINIKO OHIKO UDAL BATZAREN AKTA**

2018ko abenduaren 11n, Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 20:00 orduetan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATEA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Jose Ramon Ayerza Sarasua (Asteasu Batuz, AB)  
Joseba Txapartegi Nieve (Asteasu Batuz, AB)  
Maria Pilar Iturbe Urdangarin (Asteasu Batuz, AB)  
Haritz Mugika Lasa (Asteasu Batuz, AB)  
Aitor Usandizaga Izaguirre (Asteasu Batuz, AB)  
Antonio Elicegui Orbegozo (Asteasu Batuz, AB)  
Luke Uribe-Etxebarria Apalategi (EAJ/PNV)

IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekitzat ematen du Udal Osoko Bilkura:

### **GAI ZERRENDIA:**

**1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:**

- **2018.06.26ko Udalbatzarraren akta.**
- **2018.10.30eko Udalbatzarraren akta.**

**2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:**

- **2018.urtekoak (279-325)**

**3. 2018ko Udal aurrekontuen 2018/07 Kreditu Aldaketa: onespena**

**4. 2019ko Udal aurrekontuak: hasierako onespena**

**5. Erregu eta galderak.**

.../...

## **LEHENENGO PUNTUA**

**Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:**

- **2018.06.26ko Udalbatzarraren akta.**
- **2018.10.30ko Udalbatzarraren akta.**

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu aktak onartu ditu.

## **BIGARREN PUNTUA.**

**Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:**

- **2018.urtekoak (279-325)**

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.

## **HIRUGARREN PUNTUA**

**2018ko Udal aurrekontuen 2018/07 Kreditu Aldaketa: onespena**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzarrak

ERABAKIA HARTU DU

Lehenengoa. Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK	1.009.614,43	56.000,00	953.614,43
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	1.009.614,43	56.000,00	953.614,43

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
-----------	-------	------------------	------------	--------------------

1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK			
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK	50.000,00	56.000,00	106.000,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
GUZTIRA		50.000,00	56.000,00	106.000,00

Bigarrena. Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa

## **LAUGARREN PUNTUA**

### **2019ko Udal aurrekontuak: Hasierako Onespena**

2018/11/28an aurkeztutako idatzien bidez ASTEASU BATUZ Udal taldeak eta EAJ-PNV Udal Taldeak 2018ko udal aurrekontuetarako proposamenak aurkeztu dituzte.

2018/12/4ean eginiko Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordean bi Udal taldeek 2018ko udal aurrekontuetarako proposamen-zuzenketak aztertu dituzte, eta proposamen-zuzenketa berriak aurkeztu dituzte.

Proposamen-zuzenketa horiek Udal Aurrekontuen Proiektuan txertatu dira bere osotasunean.

2019ko Udal Aurrekontu Orokorren Proposamena bozketara jarri da eta bertaratutako kideen aho batez onartu da.

Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazio Batzordeak aurretik irizpena eman du.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Beraz, Udalbatzarrak

ERABAKIA HARTU DU

Lehena. 2019ko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, eta Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda hasierako izaeraz onartzea.

Bigarrena. Iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian, eta iragarki taulan, jendaurrera azaltzeko hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

**BOSGARREN PUNTUA**

**Moziok:**

- **Azaroaren 25erako Adierazpen Instituzionala.**

**“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”  
*Biktimen erreparazioak emakumeei ahotsa ematea eskatzen du***

Azaroaren 25a dela eta, *Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean*, indarkeria matxistatik libre egongo den gizartea eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz azpimarratu behar dugu **badagoela loturarik genero-arrazoiengatiko bazterkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean**, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten **erreparazio-eskubidean**. Erreparazio horrek **egiarako eskubidea** dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzea eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeen errelatoak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan **biktimizazio bikoitza** gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, justifikatu egiten dira erasotzaileak.

Tokiko Erakundeetatik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun ardura sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu. BERDINSAREAtik, *Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalen saretik*, indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren artikulazioa lantzen ari gara, nola-eta Istanbuleko Hitzarmenaren markoa egokituz eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuz.

**Ezinbestekoa da ematea ahotsa emakumeei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari.** Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezen eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

**Horretarako, Udalek ondokoak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu:**

- Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbitzuzko sare bat gauzatzearekin batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezen, ahalduz feministak eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.
- Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarri.
- Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol-mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.
- Ekimen kolektiboei laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.
- Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatuz.
- Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorpen publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.
- Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 8 (Legarra, Ayerza, Txapartegi, Iturbe, Mugika, Usandizaga, Elicegui, Uribe-Etxebarria)

Kontrako botuak: 0



ASTEASUKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Abstentzioak: 0

Beraz, Udalbatzak

ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **Erregu eta galderak**

Ez dira aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat ematen du arratsaldeko 20:10 orduak direnean, nik Idazkariak, bertan jasotakoaren akta hau luzatzen dudalarik.

Asteasun, 2018ko abenduaren 11n.

Alkatea

Bitarteko Idazkari-Kontuhartzailea